



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**B I Z K A I A**

Prentsa-oharra

Batzar Nagusiek ez dabe onartu Bizkaiko Foru Aldundiaren negoziazio kolektiboa eta lan hartu-emonei eta zerbitzu publikoak mantentzearen alde egiteari buruz Socialistas Vascos Taldeak eta Bildu Taldeak alkarregaz batera aurkeztutako ekimena.

**Bilbon, 2012ko ekainaren 12an**

Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraskunde-Batzordeak gaur Bilbon izandako bileran ez dau onartu Socialistas Vascos Taldeak eta Bildu Taldeak alkarregaz batera aurkeztutako ekimen bat, zeinaren bitartez “oinarrizko zerbitzu publikoak eta enplegu publikoa mantentzea” bilatzen zan. Talde biok bilatzen eben normaltasuna Aldundiaren lan harremanetan, bai Aldundiari berari zein erakunde publikoei, GUFeri esaterako, jagokenetan. Arauz Besteko Proposamena ez da onartu Euzko Abertzaleak Taldeak aurka bozkatu dauelako eta Bizkaiko Talde Popularra abstenitu egin dalako.

**Aldundiaren Jaurtze-Batzarretako Aktak.**

Beste alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Jaurtze-Batzararen Aktak igorteari buruz Euzko Abertzaleak Taldeak eta Talde Popularrak aurkeztutako ekimen bana onartu egin ditu Iraskunde-Batzordeak. Proposamen biotan eskatzen zan Aldundiaren Jaurtze-Batzararen Aktak arinago igortea Batzar Nagusietara; Talde Popularrak eskatzen eban onartu eta hurrengo egunean bialtzea, eta Euzko Abertzaleak Taldeak “behar dan arintasun eta gaurkotasunez”, beti be aste bete baino gehiago itxi barik.

**Gernika-Lumoko osasun zentroa irekitzea**

Gai-Zerrendako bigarren aztergaia, Busturialde eta Lea Artibairako Gernika-Lumoko Bereizmen Handiko Zentroa berehala zabaltzeari buruz Euzko Abertzaleak Taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamena, onartu egin da. Ekimena aurkeztu zan hedabideen bitartez jakin zanean zentro hori urtearen amaieran edo datorren urtean zabalduko dala. Bildu Taldeak zuzenketa-eske bat aurkeztuta eukan Euzko Abertzaleak Taldearen ekimenari, eta bertan eskatzen eban “Zentroaren hirugarren solairuan gaixoen egonaldietarako zein larrialdirako behar besteko ohe kopuruak eskaintzea”. Euzko Abertzaleak eta Bildu Taldeek alde bozkatu dabe, Socialistas Vascos Taldeak aurka eta Bizkaiko Talde Popularra abstenitu egin da.

**Aldundiaren eta Arkauteren arteko lankidetzaren hitzarmena**

Era berean, Batzordeak berretsi egin dau Euskal Herriko Polizia Ikastegiaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren hitzarmena “Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamenduko Zerbitzuko langileen prestakuntzan, trebakuntza eta perfektionamendu profesionalerako jarduerak garatuz Zerbitzuon prestakuntza profesionala indartu eta



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

hobetzeko, beren zereginak eta sinatzaileen artean adosten diren ekintzak eraginkortasunez gauzatu daitezten.” Euzko Abertzaleak Taldeak, Socialistas Vascos Taldeak eta Bizkaiko Talde Popularrak berretsi egin dabe hitzarmena, eta Bildu Taldea abstenitu egin da.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**B I Z K A I A**

Nota de prensa

## Las Juntas Generales rechazan una iniciativa de Bildu y Socialistas Vascos para que la Diputación mantenga el empleo público en los entes forales y desbloquee la negociación del convenio en el IFAS

**Bilbao, a 12 de junio de 2012.**

La Comisión Institucional de las Juntas Generales de Bizkaia, reunida hoy en Bilbao, ha rechazado una propuesta conjunta de los Grupos Bildu y Socialistas Vascos que perseguía -según ellos- “mantener los servicios públicos esenciales y el empleo público”. Ambos grupos pretendían que se recuperara la normalidad en las relaciones laborales de la Diputación y de entes públicos dependientes como el IFAS. La iniciativa no ha salido adelante por el rechazo del grupo Nacionalistas Vascos y la abstención del grupo Popular Vizcaíno.

### **Actas de los Consejos de Gobierno de la Diputación**

Por otra parte, la Comisión Institucional ha aprobado dos iniciativas de Nacionalistas Vascos y Populares para acelerar el proceso de comunicación de las Actas del Consejo de Gobierno que llegan a las Juntas Generales de Bizkaia. A través de dos proposiciones no de norma, estos grupos han mostrado su disconformidad con el tiempo que transcurre desde que se aprueban los asuntos en los Consejos de Gobierno de la Diputación hasta que se recibe la documentación en el legislativo. Mientras que el Grupo Popular Vizcaíno solicita en su proposición que se envíe una copia de estas actas al día siguiente de ser aprobadas, el grupo Nacionalistas Vascos considera que se debe hacer con la “suficiente celeridad y actualidad” sin que transcurra más de una semana.

### **Apertura del centro sanitario de Gernika-Lumo**

En el segundo punto del orden del día, la Comisión ha aprobado una proposición no de norma del Grupo Nacionalistas Vascos para que se abra de forma “inmediata” el Centro de Alta Resolución de Gernika-Lumo para la cobertura sanitaria de Busturialdea y Lea Artibai, tras conocerse a través de los medios de comunicación que este centro comenzará a ser operativo a finales de año o principios del siguiente. Esta iniciativa parlamentaria ha recibido una enmienda de Bildu, que ha sido rechazada por el grupo proponente, con la que se pretendía solicitar la instalación de 70 camas para estancias y servicios de urgencias. Los grupos junteros Nacionalistas Vascos y Bildu han votado a favor de la iniciativa, mientras que el grupo Socialistas Vascos ha votado en contra, y el Grupo Popular Vizcaíno se ha abstenido.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**B I Z K A I A**

**Convenio Diputación-Arkaute en materia de formación**

Asimismo, la Comisión ha ratificado el Convenio de colaboración firmado el 4 de abril por la Academia de Policía del País Vasco y la Diputación Foral de Bizkaia en materia de formación del personal del Servicio de Prevención y Extinción de Incendios y Salvamento que pretende “mejorar y reforzar la capacitación profesional de dichos Servicios mediante el desarrollo de actividades formativas y de perfeccionamiento profesional para lograr un eficaz desempeño de sus funciones”. Los grupos junteros Nacionalistas Vascos, Socialistas y Populares han ratificado el contenido del convenio, a excepción del Grupo Bildu que ha optado por abstenerse.